

Eta heriotzaren aurrean... zer?

11. saioa

OHARRA: *Honako saio hau, familiaren batean, heriotzaren esperientzia bizi berri dutenean edo haurrak galderak egiten hasten direnean egitea proposatzen dugu. Dena dela, beti bezala, eragileak bidezkotzat jotzen duenean egin daiteke.*

Heriotza, lehenago ala beranduago ukitzen gaituen kontua da. Beti “harrapatzen” gaitu ezustean, beti uzten gaitu hitzik gabe. Haurrekin gai honen inguruan jarduten dugunean, asko eta asko deseroso sentitzen gara, behin baino gehiagotan geratzen garelako zen erantzun ez dakigula. Hala ere, ezinbestekoa da zentzunez, bakarka eta familian aurre egitea. Saio honetan, Jesusen Jainkoarengan konfiantza ipinita landuko dugu heriotzaren gai hau.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Heriotzak galderak eta zalantzak pizten dizkigula konturatu
- Heriotzaren aurrean, Ebanjelioaren argitan erantzun
- Haurrek gaitzaren, heriotzaren... aurrean dituzten kezkek entzun, arreta eskaini

Haurrak:

- Triste jartzen nauten, sufriarazten didaten egoerak adierazi
- Jainko Aitak maite gaituela sentitu
- Jainkoak beti zorioneko nahi gaituela sinetsi

GARAPENA

Aurkezpen eta harrerarako unearen ostean, bilerara nortzuk eta nola joan garen ikusteko minutu batzuen ondoren, “*ez da erraza, urtxintxa txikia!*” ipuina¹ irakurriz hasiko garela azalduko diegu. Ondorengo estekan aurkituko dugu ipuin hori: <https://www.youtube.com/watch?v=OUtoUVT0gZE>

Ipuina entzun ondoren, denok taldean gaudela komentatuko dugu labur-labur, entzundakoa gogoratu eta ulertzeko:

- Nortzuk ziren ipuineko pertsonaiak? (urtxintxa, ama, aita eta hontza)

¹ Garapenaren azkenean beste aukera bat eskaintzen da, taldeko haurrak txikiegiak izanez gero, ipuina desegokitzen jo daitekeelako.

- Zer gertatu zaio urtxintxari?
- Nola sentitzen zen?

Ondoren, bi taldetan banatuko gara helduak eta haurrak.

Helduak:

Ez zara seme-alabekin heriotzaz hitz egiteak kezka eragiten dion bakarria. Dena dela, heriotza bizitzako gertaera saihestezina da eta, ondorioz, ezinbestekoa dugu gaia jorratzea bai guk eta bai seme-alabek ere. Benetan lagundu nahi badiegu, heriotzaz hitz egitea egokia dela jakinarazi behar diegu.

Haurrekin batera entzun dugun ipuinaren haritik, jardun dezagun elkarrizketan sufrimendu eta heriotzazko egoeretan izan ditugun sentimenduen, zirrararen... eta horiei aurre egiteko bideen inguruan. Partaideek gogora dezatela gertuko norbaiten heriotzarekin bizi izandako esperientzia. Ondorengo galderez baliatuko gara elkarrizketa bideratzeko:

1. Nola deskribatuko zenuke esperientzia? (Jakina, esperientzia tristea izango da, baina batzuek esperientzia hori egundoko apurketa bezala bizi izango zuten eta beste batzuek lasaitasun handiagoz, edo aringarri bezala, gaixotasun luzearen ostean gertatuz gero. Taldekide bakoitzak azal dezala bizi izandako esperientzia)
2. Nola egin zenion aurre? Konfiantzaz, lasaitasunez, etsipenez, amorruez, haserre...?
3. Nondik iritsi zitzaizun itxaropena? Nork/nortzuk lagundu zizun/zizuten aurrera egiten, dolua gainditzen?
4. Fedea, lagungarri izan zenuen?

Une honetan, heriotzaren aurrean kristau itxaropena zein den gogoratuko du eragileak: Gure bizitza ez dela heriotzaren bukatzen sinisten dugu kristauok, gure bizitzak etorkizuna duela Jainkoarengan. Jesusek hots egin zuen Berpizkundea eta bizi osoa dira gure itxaropena. Honela esan zuen: *“Neu naiz piztuera eta bizia; niregan sinesten duena, hilda ere, biziko da. Eta bizi dena, niregan sinesten badu, ez da betiko hilko”* (Joan 11, 25-26). Nola ulertzen ditugu hitzok? Sinesten dugu Jesusek hots egin eta agindu digun Berpizkundera?

Bakoitzak bere esperientziaren berri eman ondoren, gai hau gure seme-alabekin nola aztertu ikusiko dugu. Horretarako, *“Zeu ere hil egingo zara?”* idazkia (*Erljio esnatzea familian*² liburutik hartuta) irakurriko dugu. Irakurri ondoren, komentatu egingo dugu, galdera hauen haritik:

- Heriotzaren esperientziari “erantzuna” emateko gauza ote naiz?
- Zein erantzun emango diet seme-alabei?

Hemen irakurritako idazkiaren ondoren datorrena irakurtzeko esan diezaieke eragileak gurasoei: *“Nolako da zerua? Beste bizitzari buruzko galderak”* (34-36 or.).

² Katekesirako Iruña, Tutera, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzak. *Familian. 0 eta 6 urtekoen erlijio esnatzea. Hemen nauzu liburukia*, 30-33 or.

Haurrak:

(Haurrekin dauden eragileek ere irakur dezatela “Zeu ere hilko zara?” idazkia, haurrek saioan egin ditzaketen galderari erantzun ahal izateko edo sor dakizkiekeen zalantzak argitzen saiatzeko).

Eragileak ipuina komentatuko du haurrekin, zer sentiarazi dien ikusteko. Garrantzitsua da aitak eta hontzak duten rola eta urtxintxarekiko jarrera nabarmentzea. Ondorengo galdera hauek lagungarri izan daitezke haurrekiko elkarrizketarako:

- Zein da gehien gustatu zaizun pertsonaia? Zergatik?
- Zer egiten zion aitak urtxintxari? (Samurtasunez, malkoak lehortzen zizkion, besarkatu egiten zuen, bizkarra ferekatzen zion). Zer adierazi nahi dio guzti hori egitean?
- Eta hontzak? (Bere hegoen pean babesten du, kontsolatu, amaren izarra erakutsi...).
- Zein sentipen zuen urtxintxak? (haserrea, tristura..., eta azkenean lasaitasuna eta poza, ama hurbil dela sentitzen duelako).
- Ezagutzen duzu hildako norbait?
- Senideren baten heriotza bizi izandako norbaiten kasuan,... nola sentitu zen? Izan zuen norbait ondoan, hontza eta aitaren antzera, kontsolatzeko?

Eragileak azaldu eta nabarmenduko die, triste gaudenean, gurasoen, aiton-amonen edo adiskideen hurkotasun eta kontsolamenduaz gainera, beti dugula Jesusena ere. Jesus gertu dugu beti eta zer gertatzen zaigun konta diezaiokegu nahi dugunean; izan ere, Berak maite gaitu eta, ipuineko aitaren antzera, “bizkarra ferekatzen digu”, kontsolatzeko eta pozteko.

Hiltzen direnak Jainko Aitaren ondoan daude; ezin ditugu ikusi, baina bai bihotzean sentitu. Inoiz ez dira gure ondotik joaten eta ez diote gu maitatzeari uzten.

Amaitzeko, ipuinetik gehien gustatu zaiena marrazteko esango die eragileak haurrei. Marraztu ondoren, erakutsi eta zer eta zergatik marraztu duten azalduko dute.

Azken unea denok batera:

Talde handian denok bildurik gaudela bukatuko dugu saioa. Eragileak Ebanjelioko txatal hau hots egingo du:

“Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du”.
Jn 12, 24

Gari-alearen irudia erabiliz, Jesusek zer esan nahi digun azalduko dugu: gare-aleak, loratu dadin eta fruitu asko eman dezan, hil egin behar du, lurrean desagertu egin behar du, gero galburu erara berriz azaleratzeko. Antzeko zerbait gertatzen zaigu hiltzen garenean: bizia dugu, baina beste era batera, Aita Jainkoaren ondoan. Aita Jainkoak maite eta zaindu egiten gaitu, beti zorioneko izan gaituzen, gure bizia inoiz gal ez dadin eta beti fruitua eman dezan.

Sinbolo erara, familia bakoitzak hazi batzuk erein ditzake lorontzi batean; honako hau etxera eraman eta zaindu egingo dute, horrela, Jesusen hitzak gogoan izateko.

SAIOAREN GARAPENERAKO BIGARREN AUKERA

Haurrak txikiegiak badira eta *“Ez da erraza, urtxintxa txikia!”* ipuina egokitzen jotzen ez bada, ondorengo garapena izan dezake saioak:

Harreraren, agurraren eta aurkezpenaren ostean, nagusiak eta haurrak banandu.

Helduak:

Belen Arjonak hildako amona aipatzen duen abestia entzun dezakegu, saiorako motibatuzko: <https://www.youtube.com/watch?v=OVjAXhMDZKg>. Ondoren, aurretik deskribatutako erara egingo dugu aurrera saioan.

Haurrak:

Bizitzak aldaketa eta gorabeherak dituela azalduko zaie hurrei; izadia ere aldatu egiten da eta nahikoa da urtaroak -udazkena, negua, udaberria eta uda- gogora ekartzea horretaz jabetzeko. Urtaro bakoitzean zer gertatzen den azalduko dute hurrek eta eragileak osatuko ditu haien komentarioak: udazken eta neguan, bizia *“itzali”* egiten da eta udaberrian berriz erretzen da. Denen artean murala egingo dute argazkiekin, marrazkiekin... lau urtaroak irudikatuz.

Hori amaitzeaz batera, eragileak azalpenekin jarraituko dugu, guri, gizakioi, antzeko zerbait gertatzen zaigula esanez. Gizakiok beti dugu bizia, hil ondoren ere, beste era batera bizi garelako. Jainko Aitak asko maite gaitu eta, horregatik, betiko bizi gara Haren ondoan. Ezin ditugu hiltzen direnak ikusi, baina badakigu Jainko Aitarekin bizi direna, beti maite gaituena eta bihotzean senti ditzakeguna.

Denok talde handian elkartuta emango diogu amaiera saioari, garapenean azaldu denaren haritik.